

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Barakaldoko Udala****Eraikinak Birgaitzeko Diru-laguntzen emakida arautzen duten Oinarriak onartzeko Barakaldoko Udal Ordenantza.**

Eraikinak Birgaitzeko Diru-laguntzen emakida arautzeko Oinarriak onartzeko Udal Ordenantza behin-behinekoz onestea erabaki zuen Udal Osoko Bilkurak, 2017ko abenduaren 28an.

Ordenantza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren legezko abisuen oholean egon da 30 egunez iragarrita, edonoren esku, eta epe horretan inork ez duenez erreklamaziorik egin, akordioa behin betiko onartzen du Udalak.

Eraikinak Birgaitzeko Diru-laguntzen ematea arautzeko Oinarriak onartzeko Udal Ordenantza ondorengo testuan adierazten da.

Barakaldon, 2018ko martxoaren 13an. — Alkatea, Amaia del Campo Berasategui



**ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DITUEN
OINARRIAK ONARTZEKO BARAKALDOKO UDAL ORDENANTZA
ZIOEN AZALPENA**

Pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatuen eskaera soziala eta ekonomikoa diru-laguntzen bidez asetzeko, sektore publikoaren finantza-jarduera nagusia diru-laguntzen bidez bideratzen dela adierazten du azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 zenbakiko Lege Orokorrak. Eskaera horiek asetzeko baliabideen jatorria kontuan hartuz, guztiz beharrezkoa da, aurrekontuak aukera ematen duenean behintzat, objetibotasuna, lehia, segurtasun juridikoa, publikotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna nagusi izatea, esku-hartzeko tresna horren bidez bideratutako jarduera guztietan.

Arau honek adierazten du tokiko korporazioen diru-laguntzak ordenantza orokor edo espezifiko baten bidez onetsi beharko direla, eta horrelakorik ez balego, diru-laguntza modalitate honen berezitasunak kontuan hartuz, honako hau da formularik egokiena, eta horretarako erabiliko dena.

Legezatasun arrazoiengatik eta egoera berrira egokitzeko helburuarekin, oinarri ezargarriak berriro diseinatu beharra dago, lege honek diseinatutako esparru juridikoa, mota honetako diru-laguntzen emakidan udalerrian urtez urte lortutako esperientzia, gaur eguneko egoera ekonomikoa eta arau berrien onartzeak ordenantza honetan duen eragina kontuan hartuz.

Interes orokorreko jarrera zehatz batzuk sustatzeko erabiltzen dira diru-laguntzak, eta baita, administrazioa eta partikularren arteko elkarlanaren bidez interes publikoko jarduerak kudeatzeko ere.

Eraikuntzak kontserbatzeko interes publikoa egon denez, jabea behartuta egon da horretara. Eta, legeria berriak dioenaren arabera, eraikuntzak eguneratzeko ardua ere izango du orain jabeak, irisgarritasuna, eraginkortasuna energetikoa eta Eraikuntzarako Kode Teknikoan ezarritako beste eskakizunak ere bete daitezen.

Konfigurazioa -eraikinaren kontserbazioa eta egokitzapenaren behartzat hartzen dena- eta eraikinari berriz balioa emateko jabearen interes nabaria, bateragarriak dira diru-laguntzarekin. Alde batetik, berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketen ondoriozko ordezkapen jardueren beharra eta baliabideen kontsumoa murrizteko dagoen interes orokor sendoa dagoelako, eta are garrantzitsuago, eragiten duten bazterketa sozialarengatik. Beste alde batetik, eguneratu gabeko eraikuntza delako nahiz hiri-ingurunekeo nariadura prozesuetan hondatutako eraikuntza delako. Eta, azkenik, esku-hartze gehien behar duten eraikuntzetan baliabide urriko hiritarrak bizi direlako, oro har.

Jabekide batzuek baliabide urriak edukitzeak eraikinen esku-hartzea oztopatzen dute kasu batzuetan, eta guztiz eragozten beste batzuetan; horrek diru-laguntzaren bidearen egokitasuna zehazten du. Luzaroko enplegu urriek eta gaizki ordaindutako enpleguen orokortzeak ondorio larriak ekar ditzake hiri-inguruneak ondo kontserbatuta irauteko; beharrezkoa da, beraz, hiri-nariaduraren mehatxua desagerraraztea. Ikuspuntu horretatik, Eraikinen Ikuskapen Teknikoen neurri osagarritzat hartzen da diru-laguntza; tresna erabilgarri eta beharrezkoa, bizilagun batzuen zailtasun ekonomikoaren ondorioz, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa ez dadin ezerezean geratu.

Gure udalerrian, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzez gain, EIOZen hobariak emandako laguntzek zehazten dute eraikinak birgaitzeko lanen laguntza esparrua, zeinak langa arkitektonikoak kentzeko lanen %4,2 eta fatxadaren erabateko eraberritze lanen %3,8 ordaintzen duten. Hala ere, horrelako sustagarriak bereizketarik gabe ematen zaizkio, Komunitatearen bidez, eraikinaren jabari titulartasuna duen orori, diru-laguntza jasoko duen elementuan bakarrik jarritz arreta eta kideen gaitasun ekonomikoa kontuan hartu gabe.

Horregatik, oinarri hauek (beharrezkoak eta legearen ikuspuntutik derrigorrezkoak diren lan horietarako tresna erabilgarri bat izateko helburua dutenak, desideratum soil batean gera ez daitezen horretara behartutakoak ez duenean baliabide nahikoa) komunitate-lana/kide bakoitzaren gaitasun ekonomikoa binomioan jartzen dute arreta, eta jabeak izango dira, bakoitzaren diru-sarreraren arabera, diru-laguntzen onuradun. Modu



horretan bakarrik bermatzen da gastu publikoaren arrazionalizazioa, mugatutako baliabide ekonomikoen lehentasunezko esleipen eraginkorra, eta ad-hoc sortua izan ez bada ere, autonomiako legediaren berezkoa den estrategia-planaren helburuak betetzea, hau da, mantentze-lanak, kontserbazio lanak, eraikinen hobarien eguneratzea, eta irisgarritasun lanak egitea.

AURKIBIDEA**I. kapitulua: Xedapen orokorrak.**

1. artikulua. — Xedea.
2. artikulua. — Eremua.
3. artikulua. — Barakaldoko Udalak diruz lagundu ditzakeen lanak.
4. artikulua. — Diru-laguntzaren onuradun bakoitzaren aurrekontu babesgarria.
5. artikulua. — Onuradunak.
6. artikulua. — Diru-sarrera konputagarriak.
7. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa.
8. artikulua. — Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazten duten irizpideak.
9. artikulua. — Udal organo eskudunak.
10. artikulua. — Lege-hausteak eta zehapenak.
11. artikulua. — Onuradunen betebeharrak.
12. artikulua. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

II. kapitulua: Prozedura.

13. artikulua. — Hasiera ematea.
14. artikulua. — Diru-laguntzaren eskaerak eta derrigorrezko dokumentazioa.
15. artikulua. — Antolamendua eta bideratzea.
16. artikulua. — Diru-laguntzak justifikatzea.
17. artikulua. — Diru-laguntzak itzultzea.

XEDAPEN IRAGANKORRA.**AZKEN XEDAPENA.****I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Udalerriko eraikinak birgaitzeko Barakaldoko Udalak ezarriko duen diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri orokorrak ezartzea da ordenantzaren helburua.

Hala, diru-laguntzat hartuko da kontraprestazio zuzenik ez duen eta eraikinak birgaitzeko lanak burutzeko erabilitako diru publikoa, deialdi bakoitzean ezarritako baldintza objektibo eta subjektiboak betez, diruz laguntzekotzat jotakoa, onuradunak ordenantza honetan nahiz dagokion deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituen bitartean. Deialdi bakoitzean zehaztutakoak kaltetu gabe.

Diru-laguntzen deialdia egingo du urtero Barakaldoko Udalak, eta bertan zehaztuko dira emakidarako berezitasunak.

Dagokion deialdian aurreikusitako epearen barruan, jarduera babesgarriak sustatu dituzten pertsona partikularrak izango dira laguntzen hartzaileak.

**2. artikulua. — Eremua**

Diru-laguntza hauek Barakaldoko udal mugartean dauden etxebizitza eraikinetan esku-hartzeko lanetarako bakarrik ezarriko dira, ondorengo artikuluan zehaztutako antzinatek eta taldeen arabera.

3. artikulua. — Diruz lagundu daitezkeen lanak

Laguntza ekonomiko hauen emakidaren ondorioetarako, ondorengo taldeetan sailkatutako esku-hartzeko kasuren baten barruan dauden elementu arrunten gaineko lanak izango dira jarduketa babesgarriak.

- A) *Segurtasuna hobetzea*: Hemen biltzen dira eraikinaren elementuak, estrukturarri dagokionez, modu egokian erantzungo dutela ziurtatzeko beharrezko egonkortasun baldintzak bermatu eta berritzeko jarduerak. Eraikinaren nahiz bere zatien erresistentzia, sendotasun, firmetasun eta egonkortasunari lotutako lanak dira, dela egitura orokorreko kalte edo patologien ondorio direlako, dela estalki, zimendu edo ondoko lursailak eusten dituzten ormetako kalte edo patologien ondorio direlako. Eraikinak 12 urte edo gehiago izan beharko ditu, eta 1, 2, 3 edo 4 mailako lanak izan behar dute.
- B) *Iristerraztasuna hobetzea*: Oztopo arkitektonikoak kentzeko edo murrizteko jarduerak sartzen dira hemen, aurreko egoera nabarmenki hobetzen badute betiere, bai erabateko iristerraztasuna lortzeko, bai, erabateko erabilerraztasuna lortzeko edo, justifikatuta dagoenean, erabat kentzeko, sektoreko araudiak onartutako kasuetan.
- C) *Bizigarritasuna hobetzea*: Erabiltzaileen bizi-kalitate baldintzak eta osasun egoera bermatzen dituzten baldintzei loturiko jarduketak, Eraikuntzarako Kode Teknikora egokitutakoak, batzen dira hemen. Eraikinak 5 urte baino gehiago izan behar ditu, eta 1, 2, 3 edo 4. mailako lanak izan behar dute.
- D) *Efizientzia energetikoa*: C mailako sailkapen energetikoa lortzera bideratutako esku-hartzeak sartzen dira hemen. 50 urte baino gehiagoko eraikinetan, maila bakar bat hobetzera bideratutako lanak ere jaso ahal izango dute diru-laguntza.

Dena dela, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa pasatu eta Udalak ikuskatutako txostenean eskatu edo aholkatutako mailaketa aintzat hartu eta lortu duten lanei exijitu ahal izango zaie. Hau da, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Azken Txostenaren arabera, lehentasunezko beste lan baten gauzatze egokirik egiaztatzen ez den bitartean, ez zaio beste lan bati diru-laguntzarik emango.

4. artikulua. — Diru-laguntzaren onuradun bakoitzaren aurrekontu babesgarria

Proiektuak eta dokumentuak idazteko eta lana zuzentzeko beharrezko diren teknikoaren ordainsarien eta kontratuaren zenbatekoaren arabera izango da diru-laguntza jaso dezakeen jarduketaren aurrekontu babesgarria. Diru-laguntzaren xede den horrekin zerikusirik ez daukaten aurrekontu-sailak kenduko dira lizentzia jasoko duen lanaren guztizko aurrekontutik, hots, aurreko artikuluko A, B, C eta D atalekin zerikusirik ez duten aurrekontu sailak eta horietakoren baten ondorio zuzena eta nahitaezkoa direnak ez dira kontuan hartuko diru-laguntza hau oinarritzen den aurrekontu babesgarria zehazteko.

Halaber, lanari kargak eransten dizkieten tasa eta zergak ere zenbaketatik kanpo geratuko dira.

Aurreko zenbatekoa eta elementu komunitario parte-hartze ehunekoa biderkatzearen emaitza izango da bakoitzaren aurrekontu babesgarria (dagokion ebazpenean zehaztuko da). Birgaitzeko laguntzen onuradun bakoitzaren etxebizitzako jabari tituluan zehazten da ehuneko hori.

Lana ordaintzera behartutako partikular bakoitzaren aurrekontu babesgarria 500 euro baino altuagoa izan beharko da.

**5. artikulua. — Onuradunak**

Diru-laguntza modura emango zaizkie laguntzak jarduera babesgarriak sustatu dituzten pertsona fisikoei. Onuradunen errenta-mailaren arabera izango da laguntzaren zenbatekoa.

Aparteko balioa duten ondasun higiezinak jabe diren pertsonak ezingo dute laguntza hau jaso. Gizarte larrialdietarako laguntzei ezarritako araudiko irizpideak erabiliko dira balio aparta zein den zehazteko.

Lanbide-arteko Gutxieneko Soldataren balioaren lau urteko adinako edo gehiagoko diru kopurua nahiz baloreak dituztenek ez dute laguntzarik jasoko.

Diru-laguntza bakar bat jaso ahal izango da etxebizitza bakoitzeko, lan bakoitzeko eta jabe komunitate bakoitzeko.

Ordenantza honetan araututako diru-laguntza jaso ahal izateko, eskatzailearen ohiko etxebizitza izan behar du eraikinak; eta jabea, jabeakidea edo usufruktuduna, eskatzaileak. Horietako baten lehen mailako ahaideetasuna duen familiako kide baten ohiko etxebizitza bada ere, onartuko da.

Etxebizitzak jabeakidea bat baino gehiago baditu, jabeakidea guztien diru-sarrerara ponderatuak hartuko dira kontuan, eta jarduera babesgarriaren titular izango dira.

Espediente bakar batean baturik eskatu ahal izango ditu laguntza ekonomikoak lana sustatu duen jabe erkidegoak betiere ordezkari baten bidez eta Jabetza Horizontalaren Legeak ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. — Diru-sarrera konputagarriak

PFEZren aitortpena aurkeztu behar dutenei edo beharrik izan gabe aurkeztu dutenei, dagokion PFEZren aitortpenaren zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiarena konputatuko zaizkie, eta hala badagokio, kanpo geratu diren errentak ere, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

PFEZren aitortpena aurkezteko beharrik ez dutenek honako diru-sarrera hauek konputatuko dituzte:

- Lan etekin eta langabezia-prestazio kasuetan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen %95. Horrelako kasuetan, PFEZren atxikipenengatik agiriak soilik hartuko dira kontuan.
- Langabezia-subsidio, pentsio eta kargarik gabeko dieten kasuan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen %100.

Ordenantzan araututako diru-laguntza eskatzailearen etxebizitzan bizi diren jabe guztiak hartuko dira kontuan diru-sarrera konputagarriak zehazteko, eta usufruktuduna izan bada lana ordaindu duena, orduan, bera hartuko da kontutan.

PFEZren aitortpena aurkezteko epea igaro ondoren, eskaeren epea aurkezteko epea hasi baino aurre-aurreko zergaldiari dagokio ekitaldi fiskala; hala ere, deialdian zehaztuta agertuko da.

Deialdiaren aurreko urte naturaleko Lanbide-arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoa 3,5 zenbakiaz biderkatutakoa baino altuagoa bada diru-sarrera konputagarrien zenbatekoa, ezingo da laguntza hau eskatu. Hala ere, deialdi horren urteroko argitalpenean zehaztuko da Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata urteko eurotan adierazia.

7. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Deialdi bakoitzak zehaztuko du dagokion diru-laguntzaren gehienezko muga; eskatzaile bakoitzaren urteko diru-sarrera konputagarriak eta egin behar den lan mota hartuko dira kontuan horretarako. Deialdian ez bada besterik zehazten, honako hauek izango dira laguntza tarteak:

Diru-sarrerak	Laguntzaren ehunekoa
1,5 baino gutxiagoko LGS	%50
1,5 eta 2.0 arteko LGS	%30



Diru-sarrerak	Laguntzaren ehunekoa
2,0 eta 2,5 arteko LGS	%15
2,5 eta 3,5 arteko LGS	%10

Adingabeko seme-alaba batekin edo gehiagorekin bizi badira onuradunak, laguntzaren ehunekoa %10 igoko da.

8. artikulua. — Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak

Diru-laguntza jasoko duen eraikinean egingo diren esku-hartze mota guztien artean banatu ahal izango da deialdian aurrekontua.

Lanak burutzeko beharrezko diru-laguntzak esku-hartze mota batzuei esleitutako zenbatekoak baino txikiagoak balira, beste esku-hartze tasen artean banatuko dira soberakinak proportzionalki.

Aurreko atalean azaldutako egokitzapenaren ondoren ere diruz lagundu beharreko zenbatekoa tasa bati esleitutakoa baino handiagoa balitz, proportzionalki jaitziko du ebazpen-organoak tasa bakoitzari dagokion lanen zenbatekoa, banaketa proportzionala izan dadin.

Babestutako lanak egoitza berean egingo direnez, onuradunaren baliabide ekonomikoa izango da banaketarako irizpide bakarra, ez prestazio data, ez besterik.

9. artikulua. — Udal organo eskudunak

a) *Deialdia*: Alkatetzak eskuordetutako arloko zinegotziak nahiz Hirigintzakoak proposatuta egingo du Tokiko Gobernuko Batzarrak deialdia.

b) *Bideratzea*: Aurreko puntuan esandakoaren arabeko arloari atxikitako lege aholkulari bat eta teknikari bat egongo dira laguntzak bideratuko dituen organoan; hala ere, haren osaera eta egokitasuna aldatu ahal izango dira deialdia erabakitzean.

c) *Proposamena*: Hirigintzako Informazio Batzordeak egin behar du emakidaren proposamena, edo, bestela, deialdiaren xedeari dagokion arloko informazio batzordeak.

d) *Ebazpena*: Tokiko Gobernuko Batzordearena da diru-laguntzen emakida ebazteko eskumena.

e) *Errekurtsoak*: Alkate-lehendakariak ebatziko ditu diru-laguntzak erabakitzen dituen aurka jarritako errekurtsioak.

f) *Ordaintzea*: Ordainketa xedatzen duen ebazpena eta horren aurka jarritako errekurtsioak alkate-lehendakariari dagozkio.

10. artikulua. — Lege-haustea eta zehapenak

Diru-laguntzen arloko lege-hausteei eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko IV. Tituluko eduki guztiak, eta haren araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuko IV Titulua ezarriko dira.

11. artikulua. — Onuradunen betebeharrak

Ordenantza honetan arautzen den diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak, deialdi bakoitzaren berezko gain, honako hauek izango dira:

- Diru-laguntzaren emakidak oinarri duen helburua betetzea.
- Diruz lagundu beharreko jarduera ordaintzen duen beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak jaso edo eskatu izana jakinaraztea Udalari.
- Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzaren zerga-betebehar guztiak egunean daudela frogatzea. Udal Ogasunarekin bete gabe daudenak ofizioz ikuskatuko dira. Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Barakaldoko Udalarekin zorrak izan, eta premiazkodun bidetik kobratzeko prozesu baten barruan daudenek, prozesuak atzeratu, zatikatu edo eten egin diren kasuetan salbu.



- d) Eskatutako laguntzak xede duen obraren ondorioz sortutako kontzeptu guztiei dagozkien Jabetza Erkidegoarekiko betebeharrak ekonomikoak egunean izan behar ditu onuradunak. Ez bada horrela, eta Erkidegoko Idazkariak egindako zorren egoera-agirian diru-laguntzaren zenbatekoa gainditzen badu zor horrek, orduan, onuradunaren alde ebatziko da diru-laguntza; baina Jabetza Erkidegoari egingo zaio ordainketa, zorra murrizteko eta laguntza babestutako lanari atxiki izanaren berme gisa. Dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoa bada kontzeptu horrengatik daukan zorra, erkidegoarekiko zorrari dagokion zenbatekoa kenduko dio Udalak laguntzaren guztizko zenbatekoari eta erkidegoari emango dio. Onuradunari emango zaio soberakina.

12. artikulua.—Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste laguntza batzuk hartzearekin.

Guztira, diru-laguntzen zenbatekoa (ez diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide bakar batena, ez haien arteko baturarena) ezingo da izan Barakaldoko Udalak diruz laguntzen duen jardueraren kostua baino handiagoa.

Horretarako, eta onuradunek betebeharra dute, hamabost egun naturaleko epean gehienez ere, beste laguntza batzuk jasotzen ari direla jakinaraztekoa, eta, bidezko bada, Udalaren diru-laguntzaren zenbatekoa berrikusiko da oinarriek eta deialdi bakoitzak ezartzen duten araudiarekin bat.

II. KAPITUALUA**PROZEDURA****13. artikulua.—Hasiara ematea**

Udalaren Urteko Aurrekontuaren onetsi, aldatu edo luzatu ostean hasiko da prozesua.

Ondorengo lau hilabeteetan, Tokiko Gobernu Batzarrak, dagokion zinegotzi ordezkariak proposatuta, birgaitzeko diru-laguntzen urteroko deialdia onetsiko du.

Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da deialdia, eta laburpen bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarkien taulan eta Udalaren webgunean. Era berean, Bizkaian entzute handia duen egunkari batean ere aipamen labur bat argitaratuko da.

Deialdian zera agertu beharko da:

- Diru-laguntzen aurrekontu-kreditua, emango den gehienezko zenbatekoa, eta, hala egokituz gero, deialdiak ezartzen duen esku-hartze tasa bakoitzari esleitutako kredituaren banaketa.
- Eskabideak aurkezteko epea. Oro har, eta deialdian besterik ez bada ezarri, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunetik hasita hiru hilabeteko epea emango da eskaerak egiteko.
- Aurkezteko tokia. Udaleko Erregistro Orokorrean edo deialdia proposatu duen arloko erregistro deskontzentratuan aurkeztuko da eskabidea, Alkate-lehendakariari zuzendua, administrazio-prozedurei buruzko araudian aurreikusitako batean egiteari eragotzi gabe.
- Onuradunen diru-sarreraren mugak, honako hauek aipatuz: erreferentziatzeko ekitaldi fiskala, ehunekoak eta etxebizitza bakoitzeko gehienezko laguntzak, ezarriko balira.
- Diru-laguntza emateko ebazpen epea eta jakinarazpenarena, betiere, hiru hilabete baino laburragoa izan beharko da.



- f) Lanak bukatzeko eta ordainketa eskatzeko epeak, eta, horiek zein kasutan eta noiz arte luzatu daitezkeen.

14. artikulua.— Diru-laguntza eskaerak eta derrigorrezko dokumentazioa

1. Deialdi bakoitzean ezarritako eredu normalizatuetan aurkeztuko dira diru-laguntza eskaerak, epea zabalduetakoan.

2. Interesatuak berak, edo bestela, jabetza erkidegoaren lehendakari nahiz administratzaileak aurkeztuko du eskaera, lizentzia onartu zitzaioneko espedientea seinalatu, eta ondorengo dokumentazioa erantsita.

- a) Eraikinaren Ikuskapen Teknikoari buruzko txostena, haren antzinasuna kontuan hartu gabe, azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuan eta maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Ez da aurkeztu beharko, ordea, aurretik ekarri bada Udalera.
 - b) Jabetza erkidegoaren egiaztagiria, erkidegoa osatzen duten elementu komunean bakoitzak duen partaidetza ehunekoari dagokiona.
 - c) Onuradunen zorren egoera-agiria, jabetza erkidegoak egina.
 - d) Onuradunen batek diruz lagundutako obrari egotz dakizkiokeen erkidegoarenganako zorrik balu: jabetza erkidegoaren kontu korrontearen banku-egiaztagiria eta zorretan den jabekideak kreditua erkidegoari lagatzeko izenpetutako agiria.
 - e) Lanen amaierako ziurtagiria.
 - f) Lanen zuzendaritzak izenpetutako obraren likidazioa, eta hari erantsirik, lanak egiten jardun duten enpresen kitapenak edo azken buruko faktura xehetua. Obra zuzendaritzarik ez bada, faktura zerrenda aurkeztuko da likidazioaren ordeztu.
3. Era berean, onuradun bakoitzaren dokumentazioa gutun-azal itxi batean, eta hari erantsirik:
- a) Dagokion deialdirako onartutako ereduaren araberrako eskaera.
 - b) NAREN fotokopia eta jakinarazpenetarako helbidea.
 - c) Laguntza eskatu duen titularraren izenean dagoen kontu korrontearen banku-egiaztagiria.
 - d) Diru-laguntzei buruzko Legearen 13.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debekuetan erorita ez dagoela adierazteko agiria, dagokion deialdirako onartutako ereduaren araberrakoa.
 - e) Helburu bererako beste laguntza batzuk jaso ez izana eta onartuta ere ez izatea adierazten duen agiria -dagokion deialdirako onartutako ereduaren araberrakoa-, haien baturak diru-laguntzaren benetako kostua gaintitzen baldin badute. Beste diru-laguntza batzuk eskatu badira, eta proiektuaren benetako kostua gaintitzen ez bada, eskatutako laguntzen zerrendari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, non zehazki aipatuko diren zenbatekoak, bai eta aurkeztu zaizkion organoa nahiz erakundea ere.
 - f) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen egiaztagiria.
 - g) Birgaitzearen titularren diru-sarrerak frogatzen dituzten egiaztagiriak.
 - h) PFEZari dagokionez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - PFEZa egiteko betebeharra badu edo aitortpena egin badu.
 - Eskaera hau aurkezterako momentuan burututa dagoen azken ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitortpenaren fotokopiak, Foru Ogasunean, kutxan edo bankuan aurkeztu izanaren zigiluekin.
 - Kontribuzio gabeko prestazioak jasoz gero, horien egiaztagiriak.



— Ez bada horrela:

- Foru Ogasunaren Egiaztagiria, ordenantza honek zehaztutako ekitaldiaren PFEZ aitortpena egin behar ez duzula egiaztatzen duena.
- Besteren kontura lan egiten duten langileen kasuan, enpresa edo nagusiak egindako agiria, ekitaldi horretan kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerara gordinak azaltzen dituena.
- Pentsiondunen, edo beka, prestazio edo subsidioren bat dutenen kasuan, dagokion ekitaldiko agiria.

Bai eta, deialdi bakoitzean zehaztutako beste edozein agiri ere.

15. artikulua.— Antolamendua eta bideratzea

1. Eskabide bakoitza jasotakoan, ofizioz egingo ditu espedientea bideratu duen organoak eskatutakoari dagozkion balorazio teknikoa eta ekonomikoa bai eta beharkizun administratiboak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko behar diren behar adina jarduketa ere.

2. Aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat antzemango balitz, hamar egun izango ditu interesdunak zuzentzeko. Zuzenketa egin gabe amaitu bada epea, bertan behera utzitakotzat joa izango da; baina, hala ere, onartu egingo dira eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehenago aurkeztutako akatsak zuzentzeko agiri guztiak.

3. Eskaerak aztertutakoan, kide anitzeko organoari helaraziko dio espedientea hura bideratu duen organoak, eskaera bakoitzaren ebaluazio txostenarekin batera, eta bertan adieraziko, obrak betetzen al dituen diruz lagundua izateko baldintza objektiboak, baremoa nola aplikatu edo deialdiaren berariazko zehaztapenak, zenbatekoa den babestutako arrekontua, zein diren eskatzaileen beharkizun ekonomikoa, bai eta —oinarri arautzaileen eta deialdiaren arabera— zein diren diruz lagundu beharreko kopuruak ere.

4. Egindakoa kontuan hartuz, kide anitzeko organoak —eskumena duen arloko zinegotzi ordezkariak horretarako deituta—, espedientea bideratu duen organoaren bitartez egingo du proposamena, eta Tokiko Gobernu Batzarraren hurrengo deialdiko eguneko gai zerrendan sartuko dute, diru-laguntzak onartzeko, bidezko ez direnak gaitzesteko eta prozeduran atzera egindakoen berri emateko.

16. artikulua.— Diru-laguntzak justifikatzea

Eman eta ordaindutako laguntza guztiak justifikatuta daudela ulertzen da, diru-laguntzak ondoren ordaintzekoak direlako eta izaera komunitarioa dutelako, eta diru-laguntza ematerakoan obra egina dagoela egiaztatzen delako, bai eta, halaber, onuradun guztiek badakitelako zein diren eskatutako diru-laguntzak xede duen obratik eratorritako kontzeptu guztien kariatara jabetza erkidearekiko dauzkaten obligazio ekonomikoa.

17. artikulua.— Diru-laguntzak itzultzea

Honako kasuotan izango da bidezko emandako diru-kopuruak itzultzea:

- a) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 36. artikulua xedatzen duenari jarraiki, diru-laguntza emateko egintza baliogabetzen edo indargabetzen denean.
- b) Diru-laguntza eskuratu denean, eskatutako baldintzak faltsutuz nahiz ematea eragotziko luketenak ezkutatu.
- c) Diru-laguntzak xede duen helburua betetzen ez denean.
- d) Itzultzeko gainerako arrazoietako edozein, Subentzioei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikulura bilduta daudenetatik.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritako trami-tatuko da itzultzeko prozedura, eta, alkatetza dekretu bidez ebatziko.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Eretza, S.A. udal sozietateak onetsitako Eraikinak Birgaitzeko Laguntzak arautzeko Ordenantzan agertzen diren lanek jaso ahal izango dute diru-laguntza, bertan ezarritako aurreikusitako baldintzak betetzen badira betiere, eta ordenantza indarrean jartzen den egunetik hasita, 12 hilabeteko epea baino lehen bukatzen badituzte lanak eta eskatzen badute diru-laguntza.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau apirilaren 2ko toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluari jarraiki jarriko da indarrean.